

Aurten ere lehiaketa bitartez hautatuko dira Udaleko egutegia osatuko duten argazkiak

- “Merkataritza Andoainen” da zortzigarren edizio honetako gaia
- Argazki saridun bakoitzaren egileak 150 euroko saria jasoko du, SALKINeko dendetan gastatzeko bonoetan
- Urriaren 1etik 31ra aurkeztu beharko dira argazkiak, www.andoain.eus webgunean

Andoainen, 24-09-25.- Andoaingo Udalak, aurreko urtetan bezala, datorren urteko egutegia herritarren partaidetzarekin osatu nahi du, lehiaketa baten bitartez aukeratuak ateratzen diren 12 argazkiekin. Argazki saridun bakoitzaren egileak 150 euroko saria jasoko du, SALKINeko dendetan gastatzeko bonoetan eta pertsona berak sari bakarra jaso ahal izango du.

Gaiari dagokionez, “Merkataritza Andoainen” da zortzigarren edizio honetan aukeratu dena. Argazkiak argitaratu-gabeak izan behar dute eta egile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake. Aukeratu den argazkian azaltzen diren pertsonak identifikagarriak balira, egutegian azaltzeko haien baimena aurkeztu beharko da. Partehartzaileek 16 urte gorakoak izan behar dute.

Formatua, bereizmen handiko digitala, horizontala eta 2-10 MB pisukoa, zabalera 4350 px x altuera 2900 px. Bereizmena 300 ppp. Adobe RGBn JPGn formatuan.

Aurkezteko epea: urriaren 1etik 31 arte izango da, eta www.andoain.eus webgunearen biyartez egin beharko da. Emaitzak azaroaren 15a baino lehenago jakinaraziko dira.

Informazio gehiago, webgunean bertan izango da eskuragarri.

